



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Udaleko Auzitegi Ekonomiko Administratiboa
Tribunal Económico Administrativo Municipal

Ijentea, 1 - Tel. 943481617 - 943481000 - Faxe 943481667 - www.donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

DONOSTIAKO UDAL AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAREN OROITIDAZKIA

2012

AURKIBIDEA

1º. Sarrera	2
2º. Donostiako Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren epaitzen berri zabaltzea.....	3
3º. Alde pertsonalak eta lan karga	19
4º. Alde materialak eta informatikoak	21
5º. Aurkeztutako erreklamazioak	21
6º. Ebatzitako erreklamazioak.....	23
7º. Ebazteke diren erreklamazioak	25
8º. Epaitzak zein aldetarantz eman diren	26
9º. Auzitegiaren irizpideak	29
10º. Aurkeztutako gatazkei buruzko iruzkinak	29
11º. Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboak konparatuz eginiko azterketa.....	31
12º. Eskatutako irizpenak	34
13º. Ondorioak.....	35

1º. SARRERA

Donostiako Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboa errekurtsogileen eskubideak era eraginkorren babesteko printzipioaren adierazpena da, baina modu independentean funtzionatzen du. Hala dago jasota bi dokumentutan: 57/2003 Legeko (2003ko abenduaren 16koa, Tokiko Gobernuaren eraberritzeko neurri buruzkoa) zioen azalpenean eta Erreklamazio Ekonomiko Administratiboaren Ebazteko Araudian.

Donostiako Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboak urtero aurkezten die memoria Udalbatzako kide guztiei. Memoria horretan aurreko ekitaldian egindako jardueren berri ematen da.

Donostiako Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren jarduerak biltzen dituen memoria Udalean aurkeztuko da, eta 2012. urtean egindako lanaren erregistroa jaso du.

2012ko abenduaren 31n idatzitako memorian 2012. urtean egindako lanari buruzko informazioa jaso da. Halaber, lana 2005eko ekainean abiarazi zenetik hainbat alderdik izan duten bilakaera alderatzeko grafikoak ere sartu dira, hala nola: 2005etik hona egin diren erreklamazioek, emandako epaitzek dakarten erabakiak, eta erreklamazioak izapidetzeak eta ebazpenak egiteak dakarren lan-karga.

2012an aipatutako jarduera hobetzen jarraitu dugu. Izan ere, jarduera hori da auzitegiaren oinarritzeko xede eta eginkizuna. Jasotako grafikoetan ikus daitekeenez, 2012an bilakaera positiboa izan da; izan ere, eta gero ikusiko dugun bezala, erreklamazio asko ebatzi dira. Hala erakusten dute *Análisis de*

litigiosidad y resultados prácticos de la actuación de los Tribunales Económico Administrativos Municipales txosteneko datuek. Txosten hori Bilboko Auzitegi Ekonomiko Administratiboko kide batek aurkeztu zuen, eta aipatutako datuak sartu dira, Donostiako Udalak haien berri izan dezan.

Auzitegiak, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legeak eta Erreklamazio Ekonomiko Administratiboak Ebazteko Donostiako Udaleko Araudiak xedatutakoari jarraituz, bere dituen eginkizunak gauzatzeko egin duen lana aztertu da. Funtsean, honako hauek oinarri dituzten erreklamazioak ezagutzeari eta ebazteari jarri zaio arreta batez ere: kudeaketako egintzak, likidaziokoak, zerga-bilketakoak eta zerga-ikuskaritzakoak; baita udalaren eskumeneko zuzenbide publikoko sarreraren nahitaezko zerga-bilketakoak (bereziki Udal zehapenak jartzen dira, halakoetan) eta zerga-ordenantzen Proiektuari buruzko txostenekoak.

2. DONOSTIAKO UDAL AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAREN EPAITZEN BERRI ZABALTZEA

Zergen arloko berraztertze errekurtsoak ezesteko eman diren epaitzei dagokienez, zerga mota bakoitzean eman diren epaitzen berri eman da. Haien espezifikotasunaren arabera aukeratu dira epaitzak.

Orobat, eta interesdunek jakin dezaten, auzitegiaren epaitzek dakarten erabakia udalaren webgunean zabaltzeko asmoa dago. Erabaki horiek doktrina izango dira, gero.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.

- **477-2012 epaitza, baietsi duena** Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren hobaria ukatzearen aurka jarritako erreklamazio ekonomiko administratiboa, eta onartu duena hobariaren eskubidea.

Izan ere, egiaztatuta geratu da 2005etik gaur egunera arte familia ugari-ko tituluaren titular gisa mantendu direla, 2010eko uztailaren 16an ohiko bizitegi berri gisa adierazi zuten helbide berrian ere titulu hori mantendu baizitzaien. Egiaztatuta geratu da 2011ko urtarrilaren 1ean, zerga sortzen den datan, interesdunek familia ugari-ko hobaria aplikatzeko eskubidea zutela. Hobariaren eskaria 2011ko ekainaren 17an formalizatu bazen ere, eta aldi horretan bertan eskubide hori onar dakien eskatzen bada ere, Zerga Ordenantzaren 11. artikulua ezartzen duenez, kasu horretan interesdunak 2011n izaera hori lortzea ez da beste hobari bat, baizik eta hobari hori bere etxebizitzan jasotzen zuen eta ohiko bizilekua aldatzen duen pertsona baten kasua da -2011n mantendu egiten ditu bizileku berrian izaera hori mantentzeko baldintzak-.

Ezestearen arrazoi bakarra hobaria 2011ko urtarrilaren 1a baino lehen ez eskatu izana da. Ondorio horietarako, Diruzaintzako Zuzendaritza Nagusiak eskaera bidezko zerga onurei buruz aditzera eman du zerga onurak atzeraeraginez izango direla indarrean.

- **922-2012 epaitza, erabaki du ezestea** Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordainagiria % 50eko hobaria onartzearen ezespenaren aurka jarritako erreklamazio ekonomiko administratiboa.

Tasatutako etxebizitza babes publikoko etxebizitza bat da, eta hala jasota dago Donostiako Etxegintza Etxebizitzako Enpresa Erakunde Publikoaren idatzi batean.

... finka horri babes publikoko etxebizitzaren gaineko araudia zaio aplikatzekoa, etxebizitza tasatuei dagokien zehaztapenekin, baita zerga araudia ere. Arau horiek osotasunean aplikatuko dira, hau da, ezin da alegatu aplikatzekoa zaiola 12/1989 Foru Arauan eta Zerga Ordenantzan arautzen den hiru urteko % 50eko hobaria, eta ondoren esan ezin zaiola aplikatu 6/1990 Foru Dekretuan arautzen den bi hilabeteko epea. Izatez, hobariaren hiru urteko indarraldiaren eskubidea eskatzeko ematen da epe hori, eta hobariaren indarraldiko urte horiek zenbatzen hastea ekarriko du, baita eskatu eta hurrengo aldirako onartzea ere, Zerga Ordenantzak arautzen duen bezalaxe.

Ondorio horietarako, ohartarazi behar da 393/2011 epaitzan finka horri % 50eko hobaria aplikatzeko eskubidea ez onartzearen kausa 6/1990 Foru Dekretuan oinarritzen dela, nahiz eta hobari horretaz gozatzeko oinarritzko baldintzak betetzen dituen. Izatez, zerga horren kudeaketa garatzen duen 6/1990 Foru Dekretuak 7,1b) artikuluan erregulatzen du hobariak eskatzeko epea.

Eta 6/1990 Foru Dekretuak ezarri bezala, Zerga Ordenantzak, 11.2. artikuluan, espreski erregulatzen du eskubide hori onartzearen ondorioak hasteko dataren alderdi formala.

Kontuan izanik erreklamazioaren egileak eskaera 2011ko urtarrilaren 7an aurkeztu zuela, hobari hori ez zitzaion onartu 2010eko aldirako, eta, artikulua horri berari jarraituta, Auzitegi honek ezetsi egin behar du 2011ko aldirako hobaria onartzea. Erreklamazio honen espedientea osatzen duten dokumentuetan oinarriturik, egiaztatuta geratu da erreklamazioaren egileak hobaria onartzeko eskaria 2011ko urtarrilaren 7an eskatu zuela, eta, Zerga Ordenantzaren 11.2. artikulua araberaz eta 6/1990 Foru Dekretuaren araberaz, hobaria ezin izango da 2012 baino lehen aplikatu. Edonola ere, kasu honetan finka horren hobaria onartzeko eskubidearen konputua 2009ko ekitaldian hasten dela eta 2011ra arte luzatzen dela aintzat hartuta, 6/1990 Dekretuaren 7.1.b. artikulua araberaz, ez da bidezkoa eskubide hori 2012rako aplikatzea...

- **1012-2012 epaitza, ezetsi duena** Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren salbuespena onartzearen ezespenez aurka kongregazio erlijiosoaren izenean jarritako erreklamazio ekonomiko administratiboa.

Zerga hori arautzen duen Zerga Ordenantzaren 5. artikulua honako hau dio: *Zerga hau zergaldiaren lehen egunean sortzen da*. Gero, 2011ko urtarrilaren 1ean XXX finkak duen izaerak zehaztu du zerga horren karga 2011ko ekitaldian.

Espedientea osatzen duen dokumentazioan jasoarazi da interesdunak 2011ko ekainaren 22an eskatu zuela finkaren Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren salbuespena. Era berean, Foru Aldundiak 2011ko abenduaren 12an jaulkitako txostenean salbuespena onartzearen aurka egiten du, eskatzailea ez baitzen kargatutako finkaren subjektu pasibo gisa jasoarazi. Hori dela eta, erreklamazioaren egilea zergaren subjektu pasiboa ez bazen, ezin izango zuen salbuespena eskatu, dagokion zerga erregimen berezian oinarrituta.

Bestalde, 6/1990 Foru Dekretuak salbuespena onartzearen hasiera data ezartzen du, eta 7.3. artikulua dio: *izaten diren salbuespen eta hobariak eskaera egin eta hurrengo ezarraldian jarriko dira indarrean*. Hori dela eta, finka horrek katastroan eta zergen datu basean dituen datuak aldatu ostean, eta erreklamazioaren egileak irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari buruzko 3/2004 Foru Arauaren zerga erregimena aplikatu dakion egiaztatu ondoren, Udalak 2012ko ekitaldirako ondorioak izango dituen salbuespenari buruzko ebazpena eman behar du.

- **1095-2012 epaitza, ezetsi duena** Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioz 2008tik diru sarrera desegokiak itzultzeko eskaera ezestearen aurka jarritako erreklamazio ekonomiko administratiboa.

Barne lokala izateagatik lokalaren balioa aldatzeko alegazioari dagokionez, 6/1999 Foru Dekretuak bizitegi zonan bide publikotik zuzeneko sarbidea duten etxebizitzak, trastelekuen, bulegoen edo beste edozein xedeen katastro balioak kalkulatzeko berariazko formula biltzen du. Eta balio aldaketaren inguruko alegazioaren ondorioetarako, egiaztatu da Foru Aldundiak 2012ko ekainaren 11n Udalarik jakinarazi ziola lokal hori barne biltegi gisa baloratuta dagoela, kanpoaldetik sarbide zuzenik ez duen sotoan kokatzen dela eta 45 m² eraikiko azalera duela. *Barne lokal baten izaera duela alegatzen da, baina alderdi hori jada aintzat hartzen zen lokalak finkatuta duen katastro balorazioan.*

Sarrerak itzultzeko eskaerari dagokionez, Auzitegiko Idazkaritzak Foru Aldundiari kontsultatu dio zer datatan baloratu den barne lokala izatearen ezaugarria, eta jakinarazi dute 2012ko martxoaren 27an aldatu zela balorazioa, interesdunaren eskaerari erantzunez. Zergen Foru Arau Orokorraren 228. artikuluan erregulatzen dira onarpen hori lortzeko prozedurak eta eskakizunak.

- **1114-2012 epaitza, 80 erreklamazio berdin ezetsi dituenak**, erreklamazio horiek 2008, 2009, 2010 eta 2011ko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren likidazioak berraztertzeko errekurtsioak ezestearen aurkakoak dira.

Ez da erreklamazio kolektibo bat, metatutako banako erreklamazioak dira, eta, hortaz, arintasunaren eta eraginkortasunaren printzipioari jarraituta, epaitza bakarra eman da, eta bertan ez da erreklamazioaren egileak identifikatzeko inolako daturik jasoarazi, Datuak Babesteari buruzko Legea beteta. Horrenbestez, epaitza hau helarazteko unean besterik ez da identifikatuko interesdun bakoitza, administrazioarekiko auzi errekurtsioa eskaintzean.

Auzitegi honen eskumenez kanpoko alegazioak ez dira Udalak emandako administrazio egintzak, Foru Aldundiak emandakoak dira, hala nola, etxebizitza horien azaleraren datuak katastroan eta erroldan aldatzeko prozeduraren eta horren jakinarazpenaren analisiari, formalitateei eta ondorioei dagozkienak, eta etxebizitza horien katastro balioa katastroan eta erroldan aldatzeari dagozkionak. Hori dela eta, ez dira epaitzaren funts gisa aztertzen, baizik eta udal egintzen gaineko beste alegazio batzuen ondorio osagarriekin eta informazio ondorioekin, batez ere berraztertzeko errekurtsioaren bitartez likidazioak aurkakotzeko unean, Foru Aldundiko egintza horiek guztiak egintza irmo eta onartuak zirenean.

...Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren likidazioen edo berraztertzeko errekurtsioen ezespenez legezketasunean, eraginkortasunean edo baliozketasunean eraginik ez duten hurrengo alegazioei dagokienez, ez dira epaitzaren funts gisa aztertzen, beste alegazio batzuen ondorio osagarri eta informazio ondorio gisa baizik.

Espedienteak osorik ez daudela adierazten duten alegazioei dagokienez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 78. artikulua ikusirik, agerian dago udal espedientea ez dela zertan osatu erreklamazioaren egileek eskatzen dituzten lau dokumentu horiekin. ..Izatez, erreklamazioaren egilearen esku daude, eta likidazioak ordezkariak ematen ditu, likidazioen dokumentu normalizatueta jasoarazi den bezalaxe...

12/1989 Foru Arauaren berriazko prozedurak aplikatzearen inguruko alegazioei dagokienez, Foru Aldundiaren eskumeneko gaiak dira, eta likidazio horiek ez dira sartzen Foru Arau horretan izapidetzeko eskakizunekin erregulatutako suposizioen artean: 18.3. artikulua ez da *bat bera ere* gertatu eta ez da 18.4. artikulua katastro balioaren aldaketarik gertatu, ez da *zergapeturiko ondasunetan aldaketa fisiko, ekonomiko eta juridikorik* gertatu. Era berean, ez da 19.3. artikuluko katastro balioaren aldaketa gertatu, *ponentziak lantzearekin*.

Aurkakotutako likidazioak Aldundiaren eskumeneko aurretiazko ahalmenei erantzuten diete, hau da, egiaztatze eta ikertzeko ahalmenak eta funtzioak erregulatzen dituen Zergen Foru Arau Orokorren 111.1. artikuluan ezartzen direnei, *Zerga administrazioak ahalmena du...*

Zergaren likidaziorako udalaren zerga ahalmenei erantzuten diete, eta horietan jada bete dira Aldundiak emandako berriazko eskakizunak. Erreklamazioen egileek jarraitu beharreko zerga prozedurari dagokionez egiten dituzten alegazioak, benetan, Foru Aldundiak jada bideratu zuen eta aurkakotu ez zen prozeduraren aurkakoak dira. Gauzak horrela, likidazioaren elementu horietako bat bera ere aurkakotu ezin den prozedura bat bidera dadin eskatzeak administrazio kudeaketa oztopatuko luke.

Auzitegi Nazionalaren 2008ko maiatzaren 26ko epaian jasotzen den moduan, adierazi behar da: ...

Espedientean jasota dauden Aldundiak hautemandako errakuntzaren izaerari buruzko alegazioei dagokionez –egitatezko errakuntza gisa edo zuzenbidezko errakuntza gisa–, erreklamazioaren datuei dagokienez eta Aldundiaren txostenari dagokienez, eta, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren katastroan eta erroldan titularra aldatzeko ondorioetarako, zona horretan etxebizitza baten transmisiorako eskritura publikoren bat gaineratu ostean, ondoriozta daiteke aldaketa horiek egiten zituen Aldundiko pertsonak egiaztatu zuela eskritura publiko horretan jasoarazten zen etxebizitzaren azaleraren datua ez zettorrela bat katastroan zeuden datuekin eta, hortaz, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren erroldan zeuden datuekin, eta, horrexegatik, automatikoki eta eskuz aldatu zuela datu hori Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren datu basean...

Aldundiak, katastroan, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren erroldan eta zona horretako obra berrian, bere erregistroetako datuak egiaztatze lanak egin zituenean sortu zen errakuntza, ez baitzetozen bat gaineratutako eskritura publiko berriarekin. Hori dela eta, ulertzen da bi dokumentuetako datuen arteko desadostasuna zela –horren egiaztapenak ez zuen inolako zailtasunik– eta dokumentazio horren azterketa hutsean geratu zela, bestelako egiaztapenak egin gabe. Ez zen desadostasun juridiko baten ondorioz sortu. Izan ere, ordenagailuan agertzen zen etxebizitza horren azalera kargatuari buruzko datua gaineratutako

eskritura berrian jasoarazita zegoenarekin bat ez zetorrela egiaztatzean hauteman zen errakuntza. Kontuan izan behar da Ondasun Higiezinaren gaineko Zergarekin kargatutako azaleraren elementu komunak barnean hartzen direla, betiere dagokien proportzioan. Datu hori 6/1999 Foru Dekretuaren 18. artikuluan jasota dagoenez gero, ez da zalantzan jartzen Foru Aldundiko zerga kudeaketa daramaten pertsonen ezagutzen dutela, hau da, gatazka eta interpretazio juridikorik ez duen datu hutsa da, egitatezko errakuntza hartzeko ondorioetarako...

...Bestalde, Foru Aldundiak errakuntzaren berri eman ostean, eta, etxebizitzetan kargatu beharreko azaleraren zati bat Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotetan barnean ez hartzea ekarri zuenez gero, egitatezko errakuntzat hartu ondoren, Udalak aurreko aldi horietan aplikatzekoa zen zerga oinarria kalkulatu zuen eta bidezko likidazioak egin zituen. Preskripzio epearen arabera eta hautemandako azaleraren datuaren eta dagokion balioaren arabera egin ziren likidazioak –datu horiek aurrez jakinarazi ziren eta ez ziren aurkakotu–. Ildo horretan, Valentziako Auzitegi Nagusiak honakoa dio 2010eko abenduaren 21ean, 44/2008 erreke:...

Gauzatzen diren Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren likidazioen eta ordainagirien behin-behineko eta behin betiko likidazioen izaerari dagokionez, 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak, bereziki, zerga kudeaketa errazten du. Ildo horretan, Zerga Administrazioari egiaztapen mekanismo arinagoak eta eraginkorragoak eskaintzen dizkio eta Ikuskaritzari egiaztapen horiek arintzen dizkio. Zergen Foru Arau Orokorraren 126. artikulua ezartzen duen moduan, jardun esparrua eta kudeaketa organoen jardueren azken emaitza (datuak egiaztatzeko jardunekin eta egiaztapen mugatuko jardunekin) behin-behineko likidazioei dagozkie beti. Aitzitik, Ikuskaritzak diharduenean, jardunak, oro har, aktekin eta behin betiko likidazioekin amaitzen dira. Horrenbestez, dokumentuen eta erregistroen kudeaketa esparru horretako azterketetara mugatutako iritsiera duenez gero, justifikatuta egon daiteke ondoren ikuskapen jarduna egiteko aukera –kasu honetan ez da hala egin–. Beraz, egindako eta aurkakotutako likidazioen behin-behineko izaera berresten da.

... Hasteko, aditzera eman behar da behin-behineko likidazioaren eta behin betiko likidazioaren arteko alde nagusia hau dela: behin betiko likidazioa zerga obligazioaren elementu subjektibo, material, kuantitatibo eta denborazko guztien aurretiazko egiaztapen eta ikerketa oso baten emaitza da. Kontuan izanik, egiaztapen eta ikerketa ahalmenak, gehieneko hedaduran, zergen Ikuskaritzako organoei esleitzen zaizkiela, Ikuskaritzak ikuskapen prozesuan egindako erregularizazioek soilik eragin ditzakete behin betiko likidazioak.

..... Bestalde, zerga likidazioak erregulatzen dituen Zergen Foru Arau Orokorraren 97.3 artikulua dioenez, Auzitegi Nagusiak 1999ko irailaren 24ko epaian honako bereizketa egiten du... 2000ko martxoaren 11ko epaiak, gaineratu du.....

Ondorio horietarako, zerga hori arautzen duen 12/1989 Foru Arauak ez du Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Likidazioak behin betikotzat edo behin-behinekotzat jotzeko inolako agindurik jasotzen. 2/2005 Zergaren Foru Arau Orokorrean eta zerga hori arautzen duen 12/1989 Foru Arauan ez dago inolako agindurik behin-behineko likidazioak egiaztapen epea pasa eta isilbidez behin betiko bihurtzeari buruz, betiere administrazioak espresuki egin gabe.

Alegazioan likidazio irmo eta behin betikoez mintzatzen bada ere, eta egin daitekeen zerga prozeduraren epea amaitu den arren, ez dago baieztapen horiek berresten dituen legezko agindurik, aurkakotutako likidazioak egiteko legezko muga bakarra aginduzko lau urteetan finkatuta dagoenean.

Leongo Auzitegi Nagusiak, 2010eko urtarrilaren 21eko epaian, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordainagiriak behin-behinekotzat jotzen ditu...

Kudeaketa organoek behin-behineko likidazio horiek egiteko ahalmena Auzitegi Gorenaren 2011ko maiatzaren 19ko epaian jaso zen: *Zerga administrazioak ofizioz eman ahal izango ditu behin-behineko likidazioak, bere esku dauden frogak elementuek zergapeko egitatea egin izana agerian uzten dutenean...*

Laburbilduta, adierazitako egitateak eta datuak kontuan izanik, aditzera eman daiteke Foru Aldundiak Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren subjektu pasiboak jakinarazi zela katastroan hautemandako haien etxebizitzaren azalerari buruzko errakuntza zuzendu zela eta 2011ko katastro balioa finkatu zitzaizela. Ez da inon jasoarazi egintza horiek aurkakotu zirela. Aldundiaren jardun horiek ez ziren katastroa berraztertzearen emaitzazko katastroaren aldaketa baten ondoriozkoak izan, ezta etxebizitzan izandako aldaketa baten ondoriozkoak izan ere, errakuntza baten ondoriozkoak baizik. Aldundiak bideratzen dituen egintzak eta prozedurak ez dira erreklamazio honen eskumena.

Aldundiak eta Udalak ez dituzte 2011ren aurreko aldien katastro balioak aldatu. Udalak ez du 2011 aurreko likidazioak aldatzeko, deusezteko, ezeztatzeko edo berraztertzeko inolako prozedurarik hasi. Udalak Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren urteko sortzapen bakoitzean adierazi ez diren zerga horren kuotak likidatzeko dituen ahalmenak baliatu ditu, eta, horretarako, preskribatu ez den ekitaldi bakoitzean dagokion zerga oinarria kalkulatu du.

Aurkakotutako likidazioak aztertuta, likidazio horiek ez dituzte deuseztatzeko edo baliogabetzeko alegatutako arrazoiak betetzen, eta aginduzko epearen arabera egin dira, baita aurrez jakinarazi ziren datu irmo eta onartuen eta hautemandako azaleraren eta horren balioaren arabera ere –izatez ez da defentsa gabezia alegatu–.

- **1115-1128 epaitzak, 12 erreklamazio berdin ezetsi dituenak**, erreklamazio horiek Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren likidazioak berraztertzeko errekurtsio ezestearen aurkakoak dira.

Prozedurazko izaera duenez gero eta, horrenbestez, ordena eta zuzenbide publikokoa denez gero, aztertu egin behar da erreklamazioa arauz ezarritako epearen barruan jarri den. Ondorio horretarako, eta martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorraren 240. artikuluan eta udal honen erreklamazio ekonomiko administratiboak ebazteko araudiaren 29.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, aurkakotzen den egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, edo berraztertzeke errekurtsua administrazio isiltasunaren bidez ezesten denetik hasita, hilabeteko epe luzaezinean jarriko dira erreklamazioak.

Aztertutako kasuan, Auzitegi honetan jasoarazten diren jardunetatik honako hau ondoriozta daiteke: 1.) Interesdunak 2008., 2009., 2010. eta 2011. urteetako bere etxebizitzaren Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren likidazioak berraztertzeke errekurtsuaren ezespene gisa identifikatu du aurkakotu den egintza. 2.) Berraztertzeke errekurtsuaren ebazpena 2012ko ekainaren 5ean jakinarazi zen. 3.) Ebazpenak zehazten zuen egintza horren aurka erreklamazio ekonomiko administratiboa jar zitekeela Auzitegi horretan hilabeteko epean. 4.) Erreklamazio hori 2012ko irailaren 5ean aurkeztu zen, hau da, aurkakotzeko epea amaitu ostean.....

- **1200-2012 epaitza, ezetsi duena** Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordainagiriez salbuesteko eskaera ezestearen aurka XXX konpainia erlijiosoaren izenean jarritako erreklamazio ekonomiko administratiboa.

6/1990 Foru Dekretuaren 7.3. artikuluen arabera, salbuespena eskatu eta ondorengo zergalditik aurrera izango du eragina. Horrenbestez, salbuespen eskaerak 2012ko ekainaren 29ko data duenez gero, ematen diren ebazpenek 2013rako izango dute eragina, hau da, salbuespenaren eskaerak ez du eraginik 2012an. Irabazi asmorik gabeko entitateen aldeko salbuespena indargabetuta geratu da. Auzitegi Nagusiaren doktrinaren arabera, aplikatu beharreko gai ekonomikoetarako buruzko akordioan aintzat hartuko da ondasunaren afektazioaren elementu subjektibo finalistikoa gertatzearen beharra...

Zerga Kudeaketako Zerbitzuak 2012ko abuztuaren 2an jaulkitako txostena aurkako iritzikoa da, egiaztatu baita salbuespena onartzea eskatu deneko finketan ez dela Estatuaren Akordioan halakotzat hartzeko adierazitako ondasunen xedea betetzen. Entitate erlijiosoak berraztertzeke errekurtsuaren ezespene jaso zuenean eta erreklamazio hau formulatu zuenean, ez du baieztapen hori indargabetu, ez baitira betetzen salbuespena onartzeko baldintzak....

- **1205-2012 epaitza, ezetsi duena** Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordainagiriaren premiamendu probidentziaren aurka XXX konpainia erlijiosoak jarritako erreklamazio ekonomiko administratiboa.

2011ko urtarrilaren 2an finka horiek altan ematean, Zerga Kudeaketako Zerbitzuak ez zien inolako salbuespenik aplikatu. Izatez, eraiki gabeko finkak,

orubeak, direnez gero, ez dute salbuespena onartzeko eskatzen den konpainiaren etxebizitzara zuzentzeko baldintza betetzen.

Irabazi asmorik gabeko entitateen aldeko salbuespenari buruzko alegazioari dagokionez, Donostiako udalerrian irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari buruzko 3/2004 Foru Arauaren 17. artikulua aplikatu behar da, eta hori indargabetu egin da.

- **1198-2012 epaitza, ezetsi duena** 2012ko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordainagiriak berraztertze errekurtsoaren ezespeneren aurka Sociedad Estatal Correos y Telegrafos, SAK jarritako erreklamazio ekonomiko administratiboa.

Ordenantzaren 3. artikuluan aurreikusten dena kontuan izanik, zerga honekin ondasun higiezin horien jabetza kargatzen da.

Sociedad Estatal Correos y Telegrafos, SAK salbuespena onartzeko eskubidea posta zerbitzu unibertsalari buruzko 43/2010 Posta Legearen 22.2. artikuluan oinarritzen du. Artikulu horretan ezartzen denez, *posta zerbitzu unibertsala esleitzen zaion operadorea posta zerbitzu unibertsalarekin lotzen den jarduera kargatzen duten zergez salbuetsita geratuko da, sozietateen gaineko zerga izan ezik*. Artikulu hori irakurrita argi dago salbuespena ez dela onartzen ondasunaren jabetza kargatzen duten zergei dagokienez.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenen artean zerga honetarako salbuespena onartzeko eskubidearen berri ematea dagoenez gero, Aldundiko Udal Zergak Kudeatzeko Zerbitzuak salbuespena onartzearen edo ez onartzearen egokitasunari buruz 2012ko uztailearen 12an jaulkitako aurkako txostena transkribatu da.

12/1989 Foru Arauaren 4. artikuluan eta zergaren salbuespenak arautzen dituen zerga ordenantzaren 9. artikuluan, Sociedad Estatal Correos y Telegrafos, SAK alegatutako kasua jasoko duen salbuespenik ezartzen ez denez gero, eta Gipuzkoako tokiko ogasunak arautzen dituen 11/1989 Foru Arauaren 9. artikuluan aurreikusten dena beteta, erreklamazioa ezetsi egin behar da

Eraikin, Instalazio eta Lanen gaineko zerga.

- **481-2012 epaitza, ezetsi duena** Eraikinen gaineko Zergaren likidazioa berraztertze errekurtsoa ezestearen aurka jarritako erreklamazio ekonomiko administratiboa.

2011ko maiatzaren 27an tutueria berriak instalatzeko lizentzia eman zen eta lan hori zergapekoa da. Nahiz eta birgaitzeko lan gisa hartu ahal izan den, ez da % 2,5eko karga tasa aplikatu ahal izateko zehazki adierazten den suposizioaren barruan sartzen –oro har aplikatzen den % 5eko tasa orokorraren ordeztu aplikatu

daiteke tasa hori supozizio jakin batzuetan-. Horrenbestez, likidazioa zerga ordenantzaren aurrekusten denaren arabera egin dela ulertu da.

- **642-2012 epaitza, baietsi duena** Eraikinen gaineko Zergaren likidazioa berraztertzeko errekurtsioa ezestearen aurka jarritako erreklamazio ekonomiko administratiboa eta likidazioaren 11.355,06 €-ko zenbatekoa itzultzea.
- **763-2012 epaitza, baietsi duena** Eraikinen eta Lanen gaineko Zergaren likidazioaren aurka jarritako erreklamazioa. Izatez, bidezkotzat jo da 2012ko ekainaren 19an zergaren zerga oinarria egiaztatzea, baita Eraikinen eta Lanen gaineko Zergan likidatu beharreko zerga oinarriaren aldaketa ere. Era berean, bidezkotzat jo da hirigintza lizentzien tasaren zenbatekoa.

Eraikinen eta Lanen Zerga arautzen duen Zerga Ordenantzaren 2. artikulua dio behar-beharrezkoa dela lanak egitea zerga horrekin kargatu beharreko zergapeko egitatea sortzeko.

Ondorio horietarako, 4. artikulua hain dio sortzapenari buruz: Erreklamazio idatzia ikusirik, onartu behar da zerga ez dela oraindik sortu. Subjektu pasiboak berak inbertsioa gehitu dela onartzen duenez gero, likidazioan finkatutako zerga oinarria –benetan gauzatzearen kostu erreala– ez da zergaren kuota kalkulatzeko aintzat hartu beharreko amaierako emaitzazko zenbatekoa –betiere lana egiten bada–.

Lanei ekiteko mugako data izateagatik 2012ko ekainaren 19ra arteko epea emateko eskaerari dagokionez, erreklamazioaren egilea benetan eskatzen ari dena da benetan sortzen den unean likidatzea zerga, eta eskaera horrek zerga kudeaketako organoaren erabakiaren mende egon beharko du.

- **931-2012 epaitza, ezetsi duena** zergaren zerga tasaren aurka jarritako erreklamazioa, irakaskuntza orokorreko eraikina izateagatik % 5eko karga tasaren ordean % 2,5ekoa aplikatzea eskatzen duena. Jangela bat berritzeko obra txiki baterako lizentzia eman zen, eta Eranskin horren 1., 2. eta 3. atalak ikusirik, 3) atala aplikatu behar dela hartu da aintzat; hori dela eta, ezetsi egin da oin berriko lanei, hau da, obra handiei buruzko 1) atala aplikatzeko eskaera.

Eranskinaren irakurketa osoa eginik, aditzera eman behar da obra txiki bati aplikatu beharreko karga tasan ez dela kontuan hartzen –obra handietan ez bezala– etxebizitza baterako obra den edo negozio lokal baterako den edo ikastetxe baterako den, osasun zentro baterako den edo erlijio zentro baterako den; izatez, karga tasaren dibertsifikazioa egin beharreko obran zehazten den

beste parametro batekin egiten da. Horrenbestez, ezetsi egin da alegazio hori. Halaber, Zerga Ordenantzak izaera orokorreko xedapen baten izaera duenez gero, ezin dira karga tasa baten interpretazioak hala erregulatuta ez dagoen beste karga tasa batera zabaldu.

Ekonomia jardueren gaineko zerga.

- **797-2012 epaitza, baietsi duena** Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren likidazioa berraztertzeko errekurtsua ezestearen aurka jarritako erreklamazioa eta agindu duena hasitako prozedura eta likidazioa baliogabetzea, likidaziorako beharrezko 2.000.000 €-ko mugara iristen ez denez gero, salbuetsita baitago.
- **1147-2012 epaitza, zabaldu dituen** Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren likidazioen premiamendu probidentziaren aurkako epaitza baten ondorioak.
- **1211-2012 epaitza, ezetsi duena** Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren likidazioaren aurka jarritako erreklamazio ekonomiko administratiboa, ez baitira betetzen zergarekin kargatzeko 2.000.000 €-ko muga aplikatzeko baldintzak.

Ibilgailuen gaineko zerga.

- **524-2012 epaitza, zati batean ezetsi duena** 2007., 2008. eta 2009. ekitaldietako Ibilgailuen gaineko Zergaren itzulketa eta bahituraren eginbidea berraztertzeko errekurtsua ezestearen aurka jarritako erreklamazioa. Baliogabetzen den bahitura eginbidea baietsi da eta 2007 eta 2009 arteko Ibilgailuen gaineko Zergaren itzulketa ezetsi da.
- **611-2012 epaitza, baietsi duena** Ibilgailuen gaineko Zergaren salbuespena ezestearen aurka jarritako erreklamazioa, adierazitako zirkunstantziak mantentzen diren bitartean XXX ibilgailuaren aldeko salbuespena onartzen baitu, eta baliogabetu duena ordainagiria.
- **1093-2012 epaitza, ezetsi duena** Zergan salbuestea onartzeko eskaera ezestearen aurka jarritako erreklamazio ekonomikoa, salbuespena eskatzen den ibilgailuak 15 zaldi indar fiskala baitu, eta "A" baremoko ziurtagiria gaineratu behar baita 14 zaldi indar fiskaleko legezko mugak eraginik ez izateko. 2012ko maiatzaren 15ean, Auzitegiko Idazkaritzak erreklamazioaren egileari jakinarazi zion beste ziurtagiri bat gainera zezakeela "A"

mugikortasuneko zailtasuna onartu eta, hala, eskaera ebazteko. Orain arte inolako dokumentaziorik gaineratu ez denez gero, ezin da erreklamazioa baietsi, aurrerago Udalari ziurtagiria gaineratzearen kalterik gabe.

Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga.

- **643-2012 epaitza, ezetsi duena** zergaren likidazioaren aurkako erreklamazioa. Interesdunak 1995eko ekainaren 29an hildako amaren jaraunspen bidez eskuratutako finkaren % 25aren transmisioa kargatu da, eta 2011ko abuztuaren 4ko transmisióra arte likidatu da zerga. Eskrituran jasoarazitako heriotza datetan oinarrituta kalkulatu dira likidazioak. Hortaz, kalkuluaerikiko adostasuna eta errakuntzarik ez dagoela eman behar da aditzera, betiere Zerga Ordenantzaren 4. artikulua erregulatzen duen bezalaxe.
- **956-2012 epaitza, ezetsi duena** zergaren likidazioaren aurkako erreklamazioa. 1970eko martxoaren 5ean eskuratu zen datako katastro balioaren eta 2011ko abenduaren 27ko dohaintza sortzen den uneko katastro balioaren aldea kontuan hartuta egin da likidazioa, 20 urtez -10. artikulua adierazten duen gehieneko epea-.

Ur horniduragatiko tasa.

- **580-2012 epaitza, ezetsi duena** uraren eta zaborren tasen zenbait likidazio berraztertzeo errekurtsua ezestearen aurka jarritako erreklamazio ekonomikoa -2007 eta 2010 arteko ekitaldien zenbatekoan-.

Foru Araua eta zerga ordenantza hauek ikusirik, egiaztatu da finken -lokalak izan edo etxebizitzak izan- jabeen tasa horien subjektibo pasibo gisa dagokien legezko erregulazioa, haien ordeko izaera kontuan izanik. Aurkakotutako likidazioak 2007 eta 2010 arteko ekitaldien udal zerbitzuak egitearen ondoriozko tasei dagozkiela ikusirik, ordekoaren irudia udalerriek guztiz aplikatzeko zela hartu da aintzat.

- **705-2012 epaitza, ezetsi duena** ur horniduragatiko eta saneamendugatiko tasaren likidazioa berraztertzeo errekurtsua ezestearen aurka jarritako erreklamazioa.

Espedientean jaso den Ur Zerbitzuaren 2012ko urtarrilaren 18ko txosten batean aditzera ematen da 2004tik 2010eko abendura arte kontagailuak 51 m³ markatu zituela, eta 2011ko ekaineko irakurketan 1.137 m³ jaso zirela. Erkidegoak

kontsumo handi horren kausa justifikatu ez duenez gero, ihesen bat izan daitekeela uste dute, kontagailuak ur hori zuzkitu dela jasoarazi baitu.

- **766-2012 epaitza, ezetsi duena** ur horniduragatiko eta saneamendugatiko tasaren likidazioa berraztertze errekurtsoa ezestearen aurka jarritako erreklamazioa.

Uren Udal Zerbitzuaren Erregelamenduaren 88. artikulua eta hurrengoak ikusirik, gertatutakoa ezin da artikulua horretan deskribatzen diren eta Erregelamenduak berak ur zerbitzuaren hornidurako iruzur gisa kalifikatzen duen zerbitzuko anomaliatzat hartu –hornidura inolako hitzarmenik gabe erabiltzea, eta dagokion likidazioa egiteko ahalmenarekin–. Likidazio hori data hartan, 2010eko otsailean, egindako irakurketaren arabera egin zen. Aztergai ditugun aldietako likidazio jardunen kasuan, alta ematean eta lehen kontsumo hori 4.470 m³-ra arte kontabilizatu zenean, hurrengo irakurketetarako hasiera gisa, Zerbitzuaren Erregelamenduan aurreikusten denaren arabera jardun zen. Erreklamazioaren egileak ez zuen aurkakotu obrari hornitutako m³ horien kontsumoa, Uren Udal Zerbitzuaren Erregelamenduaren 88. artikulua eta hurrengoak jasotzen duten moduan.

- **1013-2012 epaitza, ezetsi duena** ur horniduragatiko eta saneamendugatiko tasaren likidazioa berraztertze errekurtsoa ezestearen aurka jarritako erreklamazioa.

Zerrendatutako gertakarietatik ondoriozta daiteke Udalak XXX finkari ur hornikuntzako zerbitzua egin ziola. Hornikuntza hori, beraz, *tasen zergapeko egitatea da*, indarrean dagoen ur horniduragatiko zerbitzua egitearen ondoriozko tasa erregulatzen duen Zerga Ordenantzaren 2. artikuluan jasotzen denaren arabera. Era berean, tasak hornikuntza bera hasten den unean sortzen dira, ordenantzaren 3. artikuluan arabera. Horrenbestez, artikulua horietan oinarrituta eta Zerbitzuaren Erregelamenduaren artikulua horietan aurreikusten dena kontuan hartuta, Udalak tasa likidatzeko eskubidea zuen. Fakturak egiteari dagokionez Zerga Ordenantza aurreikusitakoarekin bat datorrela ikusirik, ezetsi egin da udal erantzukizuneko alegazioa.

- **1236-2012 epaitza, ezetsi duena** ur horniduragatiko eta saneamendugatiko tasaren likidazioa berraztertze errekurtsoa ezestearen aurka jarritako erreklamazioa.

Aztergai dugun ordainagiria ura kontsumitu zen aldietan fakturatu ez zen hornikuntza zerbitzu bati dagokio; izatez finkako kontagailua matxuratuta zegoen. Egiaztatu ahal izan da likidazioa 900 m³-ko kontsumoari dagokiola. Finka horren aurreko irakurketekin alderatu da eta ez ondoko finkako irakurketekin; izatez, ez zuten egindako kontsumoa islatzen, eta une horretako irakurketara arte 3.288 m³-koa zen. Halaber, egiaztatu ahal izan da

interesdunak gaineratzen dituen aurreko ordainagiriak oro har 75 m³-ko kontsumoen ordainagiriak direla.

Interesdunari igorri zitzaion Ur Zerbitzuko 2012ko urriaren 30eko txostena jasoarazi da espedientean. Txosten horretan adierazten denez, 2012ko uztailaren 3an kontagailua aldatzeko edo konpontzeko udal eskakizuna jaso bazuten ere, ez zen halakorik egin, eta, hori dela eta, Uren Udal Zerbitzuaren Erregelamenduaren 79. artikuluan kalkulua egiteko aurreikusten denaren arabera egin zen ordainagiria.

Zaborrak Biltzeagatiko Tasa

- **1014-2012 epaitza, ezetsi duena** Zaborrak Biltzeagatiko Tasaren Zerga Ordenantzaren aurkako erreklamazioa.

Zaborren tasaren urteko gehikuntzen inguruan egindako alegazioei dagokienez, berriz, Auzitegiaren izaera juridiko berraztertzailearen helburua da aurkakotzen den administrazio jardura zuzenbidearen arabera den edo ez den egiaztatzea. Hori dela eta, jardun hori legezkoa den fiskalizatzen da, eta horrek kanpoan uzten ditu interesdunetarako eskubideen egokitasunari edo aukerari buruzko iritzirik, baita udal erabakien ekitateari buruzko balorazioak ere. Ezin du iritzirik eman Udal Osoko Bilkurak hiritarren gaineko zerga presioa gehitzeko erabakiaren egokitasunari buruz, banaketa justiziari buruz, koherentziari buruz, eta, oro har, aplikatutako irizpide politikoei eta teknikoei buruz.

Garabi tasa.

- **315-2012 epaitza, ezetsi duena** trafiko zigor baten premiamendu probidentzia berraztertzekeo baliabidea ezestearen aurka eta ordaindutako garabi tasari buruzko erreklamazioa.

Jabaria hesiekin okupatzeagatiko tasa.

- **704-2012 epaitza, ezetsi duena** bahitura eginbidea berraztertzekeo errekurtsioa ezestearen aurka jarritako erreklamazioa.

Erkidegoak ez du gaineratu udal txostenaren aurka benetan egiten duen eta okupazioaren jabetza partikularra egiaztatzen duen dokumenturik. Hortaz, eta Udalean dagoen dokumentazioan lur eremu hori partikularra dela jasoarazita ez dagoenez gero, Auzitegiko Idazkaritzak Erkidegoari jakinarazi dio espediente eta eskatu dio aldamioren zati bat lur eremu partikularrean jarri dela adierazten duen alegazioa egiazta dezala. Erkidegoak finkaren konfigurazio horizontalari buruzko 1978ko irailaren 14ko eskrituraren fotokopiak igorri ditu, eta bertan

dio:... Espazio horiek poligonoaren berdugune gisa definitzen dituen eskrituraren idazketa ikusirik, ulertzen da erabilera publikoa izan behar dutela, hau da, erabilera publikoaren mende daudela. Bestalde, eraikinaren alboko espazio zolatuei dagokienez, udal zerbitzuek adierazi dute espazio horiek mantentzeaz arduratzen direla eta, horrek pentsarazten du horien erabilera ere publikoa dela. Erkidegoak gaineratutako dokumentazioa aintzat hartuta, ez da udal iritziaren aurka egin.

- **882-2012 epaitza, baietsi duena** jabari publikoa okupatzeagatiko tasaren likidazioa berraztertze errekurtsoa ezestearen aurka Udal Kirol Patronatuak jarritako erreklamazioa.

Jabari publikoa okupatzeagatiko tasak erregulatzen dituen Zerga Ordenantzaren 7.3. artikulua dio: *Udal erakunde autonomiadunak... udal jabari publikoaren erabilera partikularra edo haren aprobetxamendu berezia egiteko hesiak edo aldamiok jartzeagatik, baldin eta hesi eta aldami horiek Udalak herriko zerbitzu publikoak ezartzeko edo daudenak hobetzeko sustatzen dituen obretan erabiltzen badira.*

Donostiako Udal Kirol Patronatuaren estatutuetan, haren izaera erregulatzean, organismo autonomiadun gisa osatuta dagoela ezartzen da. Argi geratu da eratu zen zerbitzu publikoaren berezko funtzioak gauzatzeko egin zela kargatu den okupazioa.

- **954-2012 epaitza, baietsi duena** jabari publikoa hesiekin okupatzeagatiko tasaren likidazioa berraztertze errekurtsoa ezestearen aurka jarritako erreklamazioa.

Zerbitzuburuak jakinarazi du ez duela zalantzan jartzen fatxada nagusiko lur eremuaren jabetza pribatua dela, baina aditzera ematen du baldosa hexagonal zuriko zoladura duen lur eremu hori eremu publikoko espazioa dela, espaloari jarraipena ematen dion oinezkoentzako iragaite publikoko zona baita.

Informazio horietatik ondorioztatzen da espazio pribatua dela. Espazio hori erabilera publikoaren afektazioaren eraginpean dagoen auziari dagokionez, aztertu diren dokumentuetan ez da jasoarazi azalera hori Udalari laga zaionik espaloietarako, bideetarako... Ez da, beraz, zortasunik jasoarazi, ez da eskubide errealik ezarri. Hori dela eta, erabilera publikoaren afektazioa juridikoki formalizatu ez den egitateko egoera baten kasua denez gero, ez da aplikatzekotzat jo aurkakotutako tasa.

Irekiera tasa.

- **1011-2012 epaitza, baietsi duena** bahitura eginbidearen aurkako erreklamazioa eta agindu duena erreklargua eta interesak itzultzea.
- **1094-2012 epaitza, ezetsi duena** fundazio baten irekiera tasaren likidazioa berraztertzeke errekurtsua ezestearen aurka jarritako erreklamazioa.

Aurkakotu den karga ez da zerga bat tasa bat baizik. Puntualizazio hori garrantzi handikoa da salbuespenak erregulatzeke, onartzeko eta aplikatzeko sistema oso desberdina baita.

Edonola ere, udal zerbitzuak eta jarduerak egiteagatiko tasen esparruan –kasu honetan esate baterako–, udal tasen arloko zerga onuren ezarpena erregulatzen duten arau bakarrak dira Gipuzkoako Tokiko Ogasunak erregulatzen dituen 11/1989 Foru Araua eta tasa hori erregulatzen duen Zerga Ordenantza, 3/2004 Foru Arauak ez baitu jasotzen.

3/2004 Foru Arauan irabazi asmorik gabeko entitateen alde tokiko ondorioetarako ezarritako zerga erregimen alegatuari dagokionez, adierazi behar da bertan onurak zergetan baino ez zirela jasotzen, eta ez tasetan. Hala ere, uztailaren 4ko 4/2012 Foru Arauak indargabetu egin du.

Telefonia mugikorreke enpresek jabari publikoa okupatzeagatiko tasa

- **756, 757, 758, 762 eta 1084-2012 epaitzak, ezetsi dituztenak** enpresen telefonia mugikorreke zerbitzuekin jabari publikoaren erabilera pribatiboaren eta aprobetxamendu bereziaren ondoriozko tasa berraztertzeke errekurtsua ezestearen aurka jarritako erreklamazioak.

Gaur egun Estatuko Auzitegi Nagusiak espazio publikoa okupatzen duten sare horien erabiltzaile soilik diren –horien jabe ez diren– enpresen alde ebatzi du gai hori. Enpresa jabeen kasuan, Auzitegi Nagusiaren epaien zain gaude.

Bide publikoko kalteak

- **510-2012 epaitza, ezetsi duena** ondare erantzukizuneko eskakizunaren erreklamazioa.

Gaiaren funtsaren alegazioari dagokionez, hau da, XX saneamendu sarean eragina izan zuten kalteen erantzulea den ala ez aintzat hartzeke, aditzera eman behar da egiaztatu dela partikular batek orain erreklamatzeko den kontzeptu beragatik haren ibilgailuan eragindako kalteak erreklamatu zizkiola Udalari. XX zona horretako urbanizazioan saneamendu sareko lanen esleipenduna izanik, erreklamazio horren erantzuleztat jo zen –gai hori administrazioarekiko auzien jurisdikziora igorrita dago–. Gai horren funtsa bat dator oraingoan erreklamatzeko den beste kontzeptu honekin; izatez, erreklamazio hau aztertzeke garaian

Auzitegi honek bere gain har ditzakeen eskumenak edozein izanik ere, egokitzat jo da Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak ematen duen epaiari jarraitzea eta erreklamazio honetara luzatzea ematen den epaiaren irizpidea.

- **998-2012 epaitza, ezetsi duena** bide publikoan egindako kalteen ondoriozko premiamendu probidentzia berraztertze errekurtsoa ezestearen aurka jarritako erreklamazioa.

3º. ALDE PERTSONALAK ETA LAN KARGA



Auzitegiko kideak Udaletik kanpokoak eta independenteak dira: Javier Herrero Aparicio, auzitegiko buru; eta Sofia Arana Landin eta Juan Santos Lopez Anton, auzitegiko kide soil. Beraz, argi dago auzitegiak funtzionamendu independentea duela.

Auzitegiko idazkaritzari atxikitako langile funtzionarioak direla eta, Finantza Zuzendaritzako Zerbitzu Juridikoan lan egiten duten funtzionario hauek dira: administrari bat, lanaldi osoan, monitorizatutako espedienteen arduraduna, lanaldi erdian, eta Zerbitzu Juridikoko burua (auzitegiko idazkaria).

Bilerak berdin egiten dira, hamabostean behin.

Auzitegiaren lan-karga auzitegiko idazkaritzak darama. Urte hauetako guztietako maila bertsuan dirau lanak. Izan ere, lan propioak ez ezik (erreklamazioak izapidetzea, adibidez), epaitza guztiak idatzi ere egiten dira, baita zerga-ordenantzak aldatzeko proiektuei buruzko txostenak ere.

Donostiako erreklamazio ekonomiko administratiboak ebazteko araudiaren 36. artikulua sei hilabeteko gehieneko epea finkatu du erreklamazioak ebazteko, eta indarrean dagoen Zergen Foru Arau Orokorrak prozedura horretarako gehienez urtebeteko epea ezarri du.



4º. ALDE MATERIALAK ETA INFORMATIKOAK

Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren egoitzak Udaletxean jarraitzen du, eta bertan egiten dira hamabostean behingo bilerak.

Auzitegi kideek ordenagailutik eskura ditzakete zirkulazioko zehapenen erreklamazioen espediente osoak.

Aurka egiteko bide hau erabili nahi dutenek paperean aurkeztu behar dituzte erreklamazioak, arautegiko 26.3 artikuluan zehazturikoari jarraituz; halaxe izango da, harik eta informatikako eta informazioko baliabide egokiak garatzen diren arte (erreklamazio ekonomiko administratiboak bide telematikoz aurkezteari buruz Zergen Lege Orokorra garatzeko emandako EHA/2784/2009 Aginduari men eginez). Ordura arte, erreklamazioak paperean aurkezteko prozedura mantenduko da, arautegiko 26.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta Isun Zerbitzuak egingo ditu espedienteak.

Auzitegiari buruz udal-webgunean ageri den informazioaz den bezainbatean, dagoeneko ageri dira erreklamazioak egiteko jarraibideak, erreklamazioetan aplikatu beharreko arautegia, eta urtez urteko oroitidazkiak.

5º. AURKEZTUTAKO ERREKLAMAZIOAK

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 137.1.a) artikuluan eta Donostiako Udaleko Erreklamazio Ekonomiko Administratiboak Ebazteko Arautegiko 1. artikuluan ezarrita dagoenez, auzitegi honi dagokio «*udal eskumenekoak diren zuzenbide publikoko zergen eta sarreraren kudeaketa, kitapen,*

bilketa eta ikuskapeneko egintzen gaineko erreklamazioez arduratzea eta horiek erabakitzea».

Administrazioarekiko diru-erreklamazio horien garrantzia, honetan datza: interesatuek gero bide judizialera iristeko behar duten tresna dela.

2012an, Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboan, ondoren zehaztuko ditugun erreklamazio hauek sartu dira. Kopuruaren, erreklamaturako kontzeptuen eta aurkezte-dataren arabera sailkatu ditugu.

2012an aurkeztutako erreklamazioak	
Zergak	62
Zehapenetako bilketa	1976
Guztira	2038

Zergak	
Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga	26
Ekonomia Jardueren gaineko Zerga	3
Eraikin, Instalazio eta Lanen gaineko Zerga	6
Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga	2
Hiri izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga	3
Jabetza-Tasa	10
Zerbitzu-Tasa	11
Baimenen Tasa	1
Guztira	62

Zehapenetako bilketa	
Zirkulazioko zehapenak	1970
Gizabideko zehapenak	6
Guztira	1976

6°. EBATZITAKO ERREKLAMAZIOAK


Alde horretatik, zergen arloko erreklamazioak ebaztearen azterketa espezifikoan, auzitegiak eutsi egiten dio sortu zenetik —2005eko ekainetik— izandako irizpideari, hots, zerga-egitateei buruz eta zirkulazioko zehapenak biltzeko prozedurari ez dagokion eskubide publikoko edozein diru-sarrerari buruz eginiko erreklamazioak berehala ebazteko irizpideari.

Erreklamazio horiek berehala ebazten dira; eta zirkulazioko zehapenetako nahitaezko diru-bilketako prozedurei dagozkienak, iritsitako ordenari jarraituz izapidetzen dira, ordena hori baita legez errespetatu beharrekoa, prozedura horiek ebazteko orduan.

Zerga-gaietako erantzunaren berehalakotasun hori egiaztatu da. Hartara, 2012. urtean 62 zerga-erreklamazio aurkeztu ziren eta horiei buruz 55 epaitza eman ziren; 2 epaitza, ebazteke geratutako aurreko urteko erreklamazioenak ziren. Abenduaren 31n 9 erreklamazio geratu ziren ebazteke, hil horren amaieran aurkeztu zirenak alegia.

Eta estatistika egitean auzitegiak dituen sei urte eta erdiko aldi osoaren ikuspegia hartzen badugu, aurkeztutako 7.774 erreklamazioetatik, 2011ko abenduaren 31n, aurkeztutako erreklamazioen %77,80 zegoen ebatzita.

1.726 erreklamazio zeuden ebazteke, hau da, aurkeztutako erreklamazioen %22,20.



Grafiko horretatik ondorioztatzen da Auzitegiaren lana beti izapidetze- eta ebazte-erritmo bertsuan egin dela.

Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiari kontu eskatutako Auzitegiaren epaitzekiko gatazkei dagokienez, honako datu hauek eman dira:

Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoetan ebazitakoak

2005-2012

Epaitza baiesleak (Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren era baliogabetzen dutenak)	6
Epaitza ezlesleak (Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren era berresten dutenak)	14
Atzera eginak	4
Auziak prozesutik kanpo betetzea	2
Ebazteke direnak	11


7º. EBAZTEKE DIREN ERREKLAMAZIOAK

Urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte, 2.959 erreklamazio ziren ebaztekoak. Haietatik 921 ziren 2011. urtetik ebazteke zeuden erreklamazioak, eta 2.038 ziren 2012an aurkeztutako erreklamazioak.

Erreklamazio horietatik, 1.233 erreklamazio ebatzi dira 2012an, eta 2012ko abenduaren 31n, 1.726 erreklamazio daude ebazteko.

Guztizko 1.726 erreklamazio horietatik, 1.633 espediente zeuden Isun Zerbitzuak izapidetzeke (kudeaketa-organo horrek bidaltzen du espediente osoa auzitegira), eta 93 espediente zeuden izapidetuta eta auzitegiko idazkaritzari entregatuta, analizatzeko eta hartu beharreko ebazpena idazteko.

Auzitegia eratu zenetik 2012ko abenduaren 31 arte egindako lanaren zenbaketa osoa hartuta, denbora horretan aurkeztutako 7.774 erreklamazioetatik, 6.048 espediente ebatzi dira, hau da, erreklamazioen % 77,80k badu epaitza.




8º. EPAITZAK ZEIN ALDE TARANTZ EMAN DIREN

Grafiko hauetan ageri da emandako epaitzak zein aldetarantz izan diren: baietsiak, zati batean baietsiak, ezetsiak eta onartezinak. Multzo horietako bakoitzaren kopurua zehaztu da, urte bakoitzean.


Zerga arloko epaitzak zein aldetarantz eman diren					
	Ezestea	Baiestea	Zati bat baiestea	Onartezinak	Guztira
Ekonomia Jardueren gaineko Zerga	2	2		-	4
Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga	7	1		14	22
Eraikin, Instalazio eta Lanen gaineko Zerga	2	2		-	4
Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga	1	1	1	-	3
Hiri izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga	2				2
Jabari publikoa	7	2	-	1	10
Zerbitzu Tasak	9	-	-	-	9
Baimenen Tasak	-	1	-	-	1
Guztira	30	9	1	15	55

Zehapenak kobratzeari dagozkion epaitzak zein aldetarantz eman diren			
	Premiamendua	Bahitura	Guztira
Baiestea	87	72	159
Zati bat baiestea	18	60	78
Ezestea	879	53	932
Onartezina	7	2	9
Guztira	991	187	1178


Zirkulazioko zehapenen nahitaezko diru-bilketako prozedurako erreklamazioetan, ezestekoak dira erreklamazio gehienetako epaitzak.




Hurrengo grafikoetan, urte horietako epaitzen noranzkoen arteko aldeak bistaritzen dira.




2010eko EPAITZAK ZEIN ALDE TARANTZ EMAN DIREN



2011ko EPAITZAK ZEIN ALDE TARANTZ EMAN DIREN





9°. AUZITEGIAREN IRIZPIDEAK

Xede berarekin aurkeztutako erreklamazioak ebaztean, auzitegiak, aurreko ebazpenetan adierazitako irizpideei lotzearen Konstituzio doktrinari jarraituz, ratio decidendi berbera erabili du, zuzenbideko oinarrietan zehaztuta. Eta zuzenbideko oinarri horiek erabiltzen jarraitzeko asmoa du, oraingoz, aurkezten zaizkion kasuetan egitateen edo zuzenbidearen funtsezko aldaketarik izan ezean; izan ere, zuzenbideko oinarri horiek zuzenbidearen arabekoak direla baiteritzogu.

10°. AURKEZTUTAKO GATAZKEI BURUZKO IRUZKINAK

Auzitegi honetan aurkezten diren gatazkak, ez dira aurkezten interesdunek erabaki dutelako bide hori hartzea, berraztertzeko errekursoarekin Udalarengana jo beharrean; hala balitz, berraztertzeko errekursoak ebazten dituzten udal-organoen erabakiak ordeztu dituen organo bihurtuko litzateke


auzitegi hau. Baina ez da hala, zeren eta udal-administrazioarekiko diru erreklamazio guztiguztiak berraztertzeke errekurtsua ezetsi delarik egiten dira, direla zehapenak betearazteko prozedurenak, edo direla udal-zergenak.

Lan-kargak handia izaten jarraitzen du, izapidetzen diren zehapenak betearazteko prozeduretan.

Grafikoetatik ondorioztatzen da, zerga-erreklamazioetako gatazkei dagokienez, erreklamazioak udal-zerga guztiei buruzkoak izan direla: Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga; Hiri izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga; Eraikinen gaineko Zerga; Ibilgailuen gaineko Zerga; Uraren Tasa, Zaborrak Biltzeagatiko Tasa, Jabaria aldamiokin okupatzeagatiko Tasa; eta Garabi Tasa.

Emandako epaitzen diru-ondorioek, urte hauetan guztietan, erreklamatuak zenbatekoen ezeste-maila bertsuan dira. Hala ere, kopuru hori handiagoa da 2009. urtean. Izan ere, udal-interesa lortu nahi duten entitateen Eraikinen gaineko Zergako % 95eko hobarien eskarrietan ezetsitako zenbateko ekonomikoak oso handiak ziren.

	2009ko epaitzak	2010eko epaitzak	2011ko epaitzak	2012ko epaitzak
Erreklamatuak	1.075.752,44 €	282.123,36 €	794.684,33	909.318,87
Baietsiak	143.556,35 €	58.098,10 €	67.088,39	87.704,90



11º. UDAL AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAK KONPARATUZ EGINIKO AZTERKETA

Ondorengo informazioa eta ondorioak urtez urte egiten ditu Bilboko Auzitegi Ekonomiko Administratiboko kide batek, “*Análisis de litigiosidad y resultados prácticos de la actuación de los Tribunales Económico Administrativos Municipales*” izenburuko txostenean.

Ebazte-Tasak adierazten du erreklamazioak zein proportziotan ebazten diren, urtero, aurkeztu diren erreklamazioen aldean (urteko ebatziak / urteko sartuak).

Emaitza 100 baino handiagoa baldin bada, esan nahi du sartutakoak baino erreklamazio gehiago ebatzi direla; eta txikiagoa bada, sartutakoak baino gutxiago.

Eraginkortasun-Tasak adierazten du erreklamazioak zein proportziotan ebazten diren, erreklamazio guztien aldean (urteko ebatziak / urteko guztiak).

Emaitza 100 baino handiagoa baldin bada, esan nahi du urteko erreklamazio guztiak baino erreklamazio gehiago ebatzi direla; eta txikiagoa bada, erreklamazio guztiak baino gutxiago.

Ebazteke dagoenaren Tasak neurtzen du zenbat urte beharko liratekeen urte bukaeran ebazteke diren espedienteak ebazteko (abenduaren 31n ebazteke diren espedienteak / urteko ebatziak).

Ebazte-abiadurak neurtzen du zenbat urte behar diren espediente bat ebazteko (urteko guztiak / urteko ebatziak).

DONOSTIAKO UDAL AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOKO ERREKLAMAZIOAK

	ERREKLAMAZIOAK	2012	2011	2010	2009
1	Urtarrilaren leian ebazteke	921	1.247	1.011	480
2	Urtean aurkeztuak	2.038	966	1.166	1.161
3	Urteko guztizkoa (1+2)	2.959	2.213	2.177	1.641
4	Urtean ebatziak	1.233	1.292	930	630
5	Abenduaren 31n ebazteke (3 -4)	1.726	921	1.247	1.011

DONOSTIAKO UDAL AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAREN ANALISIA

Urtea	Ebazpena (%)	Eraginkort. (%)	Ebazteke dagoenaren Tasa	Abiadura
2008	54,26	38,39	1,60	2,60
2009	79,76	42,72	1,34	2,34
2010	133,75	58,38	0,71	1,71
2011	60,50	41,67	1,40	2,40

2011ko ZIFRAK KONPARATUZ EGINIKO AZTERKETA

2011	Ebazpena (%)	Eraginkort. (%)	Ebazteke dagoenaren Tasa	Ebazte-abiadura
Sevilla	33,81	24,29	3,12	4,12
Madril	101,46	57,75	0,73	1,73
Malaga	85,63	60,26	0,66	1,66
Donostia	133,75	58,38	0,71	1,71
Valentzia	62,39	43,63	1,29	2,29
Bartzelona				
Las Palmas	74,09	50,73	0,97	1,97
Bilbo	121,49	67,99	0,47	1,47

Mila biztanleko urtean aurkeztutako erreklamazioen kopurua konparatzen da, dagokion urteko urtarrilaren lean udal bakoitzak duen biztanle kopurua hartuta, Espainiako Estatistika Erakundeak argitaratutako datuekin.

AZTERKETA KONPARATUA: erreklamazioak, 1.000 biztanleko

	2011	2010	2009	2008
	Erreklam./mila biztanle	Erreklam./mila biztanle	Erreklam./mila biztanle	Erreklam./mila biztanle
Sevilla	9,74	5,93	1,86	0,72
Madril	17,55	23,88	6,90	3,89
Malaga	1,26	1,07	1,15	1,15
Donostia	5,21	6,29	6,26	3,45
Valentzia	0,84	0,57	0,45	0,74
Bartzelona		0,23	0,09	0,18
Las Palmas	0,86	0,65	0,68	0,84
Bilbo	3,47	5,27	7,95	6,24

12º. ESKATUTAKO IRIZPENAK

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 137.1.b) artikuluan eta Donostiako Udaleko Erreklamazio Ekonomiko Administratiboak Ebazteko Arautegiko 1.1 artikuluan ezarrita dagoenez, auzitegi honi dagokio zerga-ordenantzen proiektuei buruz irizpenak ematea.

2011ko irailaren 30ean, ogasuneko zinegotzi ordezkariak zerga-ordenantzen proiektuei buruzko irizpena eskatu zion Auzitegiari, betiere 2012rako zerga-ordenantzen aldaketarekin.

Proposamenek zergapetze-Tasa aldatzea edo zerga-kuotak aldatzea dakarte, 2012ko ekitaldirako zerrendatzen diren zerga hauek direla eta:

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga; Ekonomia Jardueren gaineko Zerga, Hiri izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga, Eraikinen gaineko Zerga, Zaborrak Biltzeagatiko Tasak, Ur-horniduragatiko Tasak, Udal Jabari Publikoa Erabiltzeagatiko Tasak, telefonia mugikorreko zerbitzuak ematen dituzten enpresei udal jabari publikoa era pribatiboan erabili eta bereziki ustiatzeagatiko Tasak, Bide Publikotik Ibilgailuak Kentzeagatiko Tasak, Bide Publikoetan Ibilgailuak Aparkatzeagatiko Tasak, Zerbitzuak emateagatiko Tasak, Hirigintzako Lizentziak eta Zerbitzuak emateagatiko Tasak, Irekiera Lizentziak emateagatiko Tasak, Kaleen Sailkapena horien Kategoriaren arabera.

Auzitegiak, 2011ko urriaren 4an egindako bileran, eskatutako irizpenak eman zituen. Proposamenen aldeko irizpenak izan ziren.

13°. ONDORIOAK

Azterketa honetatik nabari da auzitegi honek jarraitzen duela auzitegia ezartzearekin lortu nahi zen helburua betetzen: herritarren zerbitzura diharduen doako tresna izatea, zuzenbideko profesionalek esku hartzea eskatzen ez duena; eta Udalarentzako hobekuntza elementu bat izatea, eguneroko kudeaketa egitean ihes egiten dioten okerreari antzemanaz.

2012an eginiko estatistiketan, bere horretan dirau datu honek: gatazka gai masibo izaten jarraitzen dute zirkulazioko zehapenekin eginiko betearazte-prozeduren erreklamazioek. Bestetik, Gizabideari buruzko Ordenantzako zehapenen aurkako erreklamazioak hasi dira.

Oraindik ere informatikako dema dugu, auzitegiko idazkaritzarako, prozeduraren izapideak informatizatzea, Donostiako Udaleko Administrazio Elektronikoari buruzko Araudia eta azaroaren 6ko 1671/2009 Errege Dekretua (2007ko ekainaren 22koa, herritarrek zerbitzu publikoak bide elektronikoz erabiltzearena) onartu zirela eta.

Informatizatzea lortuz gero, hurrengo aldira iritsiko ginateke: interesadunek baliabide informatikoak erabili ahal izango lituzkete, erreklamazioak aurkezteko, eta auzitegiko idazkaritzak sistema horren bidez jakinarazi ahal izango lituzke izapide, ebazpen eta epaitzak.

Donostia, 2013ko urtarrilaren 22a.

Auzitegiko idazkaria

Auzitegiko lehendakaria

Sin.:Maite Amunarriz Yeregui.

Sin.: Javier Herrero Aparicio.